

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Martxoko infernua

Duela 32 urte izan zen. Ondo gogoratzen dut, 15 urte egin beharria izanik, egun hartakoa. Greba eguna zen Gasteizen, nahiko ohituta geunden; ez zen lehen ez bigarren greba eta lantegi batzuetan hilabete pare bat baino gehiago zeramatan greban. Lehenengo langileen mobilizazioak izan ziren, gero hauen familiak, diru-bilketak egin ziren eta poliki-poliki hiri guztia ari zen langileen aldeko dinamikan sartzen. Batzuek orduan probatu genituen poliziaren lehen porra-kolpeak, trankil-trankil taldeka paseatzeagatik.

Martxoaren 3an, beraz, beste greba eguna zen. Ni eskolara joan nintzen, nabaria zen kalean giro berezia. Eskola orduan pasatu zidaten errekadua: “Etxera oinez joan beharrean autobusa hartzeko”; nire etxera bost minutu ziren oinez eta eguerdi hartan ordu erdi baino gehiago pasa nuen, lehenengo autobusean, gero autobusak etxe ondoan utzi beharrean utzi ninduen lekutik etxera joaten. Avenida moztuta zegoen eta gasolindegian istilu gogorrak izan omen ziren goizean, polizia etortzean langile batzuek sua ematearekin mehatxatu zuten. Goizeko giro berezia tentsio bilakatua zen eguerdirako.

Arratsaldean etxeko egongelan egon ginen, noizean behin kalera begira baina beti irratia entzuten, poliziaren irratia entzuten baikenuen orduan. San Francisco elizan izaniko tiroen berri izan genuen, sirenen hotsa entzuten zen Gasteiz osoan. Arratsaldeko 6etan iritsi zen nire izeba Madrildik. Trena



ALEX LARRETXI

hirira hurbildu ahala zerura igotzen ziren ke zutabeak ikusten ziren, Dato kalean emakume bati galdetu zion zer gertatzen zen: “Infernua da” erantzun zion emakume hark nire izebaren moja jantzia ikusita, poliziak langileak hil zituela, hiri guztia hankaz gora zegoela. Izeba etxera iritsi zenean egongelara bildu zen irratia entzutera, eta leihotik poliziei oihuak botatzera (zenbat aldiz sartu behar izan genuen poliziak gure etxera ere pilotak edo tiroak botako zituen beldur!).

Iluntzean agertu zen anaia, ni baino zaharra goa egun osoa emana zuen kalean eta arratsalde erdia “anbulantziak pasatzeko barrikadak kentzen eta gero berriro jartzen”. Gurasoek esana ziguten mila aldiz ez sartzeko politikan, anaiak ordurako ezagunak zituen tortura eta kartzela; egun horretan, baina, ez zioten ezer esan.

Hurrengo egunean protestara joan ginen, hiletetan ere izan ginen. Ematen zuten Gasteizko hiri guztia zegoela kalean, langileek irabazi egin zutela borroka, nahiz eta zazpi hildako izan, bost Gasteizen eta beste bi Bizkaian eta Katalunian, eta ehunka zauritu.

Baina infernua beti irabazten du Luziferrek. Patronalak, eta sindikatu batzuek, ederki baliatu zuten egoera Gasteizko mugimendu asanblearioa desegiteko; herri honetan izan den langile mugimendurik inportanteenetariko deuseztatzeko. Martxoaren 3an hildako eta zaurituez gain herri mugimendua zauritu zen San Francisco parrokan. ■

«
Gurasoek esana ziguten mila
aldiz ez sartzeko politikan,
anaiak ordurako ezagunak zituen
tortura eta kartzela; egun hartan,
baina, ez zioten ezer esan
»

TXANDAN

Juan Ramon Makuso

Voyeurismoa



Goizeko seiak dira. Kalearen isiltasuna iristen da nire ohera. Isiltasunak —norberak aukeratzen duenean oso ederra da— beldurra ekarri du nire gogora. Ez zait gustatu.

Ez nuen nahi horrela esnatu. Bada, isiltasunak esnatzea! Hori ez da okerrena, isiltasunak, bere azken laguna inguratu dit: bakardadea. Eta bakardadea ez dut aukeratu. Bakardadea ez da nire laguna, baina nire etxeko gelak hartu ditu. Ez dut aukeratu bakarrik egotea, berak hartu nau. Eta leihotik beste aldean ere ene begiek ez dute paisaia ederrik ikusten. Badaramat bi ordu leihoaren izkinan eta zuria da paisaia,

neutroa. Oso bestelakoa da jasotzen dudana. Beltza bihurtzen da zuritasuna. Eta esaten didate dena ez dela ez zuria ez beltza. Hori baino okerragoa da margoa nire aurrean. Ez du kolorerik. Agortu dira pote-koloreak. Hutsik daude, ene bizitzako geltoki guztiak bezala. Baina beti gauza berbera pentsatzen dut: nire leiho honetatik kaleko izkinetik beteak egon beharko lukete. Ez naiz ni bakarrik. Denak etxean daude ni bezala, bakarrik, barne barneko hotsei entzungor eginez, etxeko herensugeari begirik kendu gabe. Etxeko herensugeak niri begiratzen dit bere lauki beltzetik. Txalotzen dut bere *voyeurismoa*. ■